

Arartekoaren 2016R-1266-15 Ebazpena, 2016ko urriaren 13koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari gomendatu zaio berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako prestazio baten ukapena.

Aurrekariak

1. XXX jaunak aurkeztutako kexa izapidetzeko onartu genuen erakunde honetan. Horren bidez, Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskaera ukatu ziotelako.

Kexagileak adierazi zuen pasa den 2015eko urtarrilaren 21ean diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu zuela bere oinarrizko beharrak asetzeko diru-sarrerarik ez zuelako eta Lanbidek entzunaldi-izapidea eman ziola Kantabrian dituen bi lursailen titulartasun ehunekoari buruzko azalpenak emateko (YYY).

Kexagileak beharrezko dokumentazioa aurkeztu zuen egiaztatzeko horietako batean, Lanbidek % 50eko titulartasuna egozten diona, jabetza soila bakarrik duela eta udalak hirigintzari dagokionez kirol-ekipamendu gisa kalifikatutako lursailak direla. Beraz, ez zuen gauzatze baliorik.

Bigarren lursailari dagokionez, interesdunak haren gaineko titulartasuna ukatu du.

2. Alegazioak aurkeztu arren, 2015eko maiatzaren 6ko ebazpenaren bidez Lanbidek bere eskaria ukatzea adostu zuen "*ezar daitekeen araudiak ezarritako mugak gainditzen dituen kopuruko ondarea izateagatik*".

3. Azaldutako kexari dagokion izapidea emateko xedez, informazio-eskaera egin genion Lanbideri. Horren bidez, hogeita hamar eguneko epean, interesdunaren diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzea sortu zuen ustezko lursailen titulartasunari buruzko informazio zehatza eskatu genion.

Gogoetak

1. Lanbideko zuzendari nagusiak horretarako bidalitako txostenean adierazi da, katastro datuen arabera, interesdunak bi lursailen jabea dela YYYn (Kantabria). Lehenengoak, katastro-erreferentzia ZZZ duenak, jabetza soilaren % 100eko eskubidearekin eta katastro balorea 91.279,58 eurokoa duena, eta besteak AAA katastro-erreferentzia du, jabetza soilaren % 6,25eko eskubidearekin eta katastro balorea 78.791,09 eurokoa du.

Horrela, Lanbidek ulertzen du interesdunak ez duela diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren 9.3. artikuluan ezarritako irizpidea betetzen, diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioaren urteko kopurua baino lau aldiz handiagoa den ondare balorea izango lukeelako, Lanbideren zuzendari

nagusiaren 2015eko uztailaren 27ko ebazpenean adierazi zen bezala, interesdunak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ukatzen zuena.

2. 18/2008 Legearen 16.c) artikulua diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunen artean ezarri du baliabide nahikorik ez edukitzekoa, eta honako baldintzak betetzen direnean pentsatuko da baliabide horiek ez daudela: (...) ***“Dauzkaten dirua eta baloreak gehienez ere honenbestekoak izatea: batere baliabiderik ez luketen kasuan bizikidetz-unitateko kideen kopuru osoaren arabera legokiekeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoa halako lau”***.

Era berean, honako baldintza ezarri du artikulua horrek: ***“ondasun higiezinik ez edukitzea, ohiko etxebizitza izan ezik (...)”***. (147/2010 Dekretuaren 9.3.b) artikularekin bat).

Ikuspuntu horretatik, interesdunak zalantzarik gabe ez du dirurik, ez eta balorerik jaso. Bestalde, deskribatutako lursailen titulartasunean duen parte-hartzea jabego soilekoa da, eta ez jabego osokoa.

Zentzu honetan, eta lursailean ezarritako usufuktua amaitzen ez den bitartean eta hura saldu edo alokatu daitekeenera arte, **ezin da esan interesdunak hura baliatu dezakeenik**, eta ondorioz ezin da esan bere gaitasun ekonomikoa handiagoa denik jabego soil hori izateagatik, diru-sarrerak bermatzeko errenta gabe bizirauteraino.

Bestalde, diru-laguntzak aitortzeko ohiko etxebizitza ez den ondasun higiezin bat izatea den oztopoa, 18/2008 Legearen 16. artikulua eta 147/2010 Dekretuaren 9. artikulua arabera, alde batera utzi daiteke kontuan hartzen badugu lursailak usufuktu eskubide baten menpe dagoenez duen balorea oso txikia edo baliogabea da behintzat usufuktuak dirauen bitartean. Beraz, Lanbidek 2014an onartutako irizpide berdina (52. atala) ezarriz, higiezin hauek ezin dira zenbatu.

Laburbiltzeko, adierazi daiteke interesdunaren jabetza soilekoa den lursailak dakarren usufuktu amaitu arte eta higiezin hori errekurtsoak sortzeko moduan izan arte, Ararteko honen ustez, **kexagileak ez du, alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko errentakoak ez diren diru-sarrerarik, bere oinarrizko beharrei aurre egiteko aukera ematen diotenak (horrek lehenago aipatutako 18/2008 Legearen 16 c) artikuluan aurreikusitako irizpideak betetzea** dakar), modu horretan gizarte bazterketa egoera edo arriskua saihestuz, eta bestalde, ez du eskubidea ukatzea justifikatzen duen balore nahikoa duen higiezinik.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin diogu sail horri, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:



GOMENDIOA

Arartekoak, egindako gogoetei jarraiki, kexagileak egindako prestazioen eskaera ukatzeko erabakia berrikusteko gomendatu dio Lanbideri.